


HTB.Hegoalde Ikastola  
2004-2005

 Gobierno de Navarra  
Departamento de  
Educación

- 8 OCT. 2004

Entrada

## **VII.1. HAUR HEZKUNTZA: IZENAREN ISTORIA**

HTB.Hegoalde Ikastola  
2004-2005

1. SARRERA
2. 1. MAILAKO EKINTZA
3. 2 MAILAKO EKINTZA
4. 3 MAILAKO EKINTZA
5. GURASOEI BIDALITAKO OHARRA
6. AZKEN EBALUAZIOA

## SARRERA

Ekintza guzti hau aurrera eramateko haurrak zenbait prozesu pasa behar ditu aurretik. Unitate didaktiko honen ekoizpena baikorra izan dadin haurrak bere izenaren kontzientzia izan behar du. **IZENA** da haur bakoitzaren identifikazio txartela eta autonomia izatera lagunduko dion lehenengo pausua.

Horretarako haurren izenak edonon jarriak badaude ere (gakoetan, mahaietan, fitxeroetan, karpitetan...) egunero zerrenda pasatuko dute, argazki eta izena duten txarteltxo batzuen laguntzarekin, baita hizki mugikorrek erabiliz beraien izenak idatziko dituzte, eta abar luze bat.

Gainera kontuan izan behar dugu hiru urteko haur askok ez dutela sekula euskara entzun. Haurrentzat hizkuntza berri hau ulergarria izan dadin egitura oso sinpleetatik hasi beharra dugu. Irakurketa eta idazketaren bilakaera egokia izan dadin lehenengo haurrek egin behar dutena ulertu behar dute.

### 3. URTEKO EKINTZA

- **HASIERAKO EKOIZPENA**
- **BITARTETKO EKINTZA**  
    **“ Iñaki eta Beatrix triste daude”**  
**ipuina.**
- **BUKAERAKO EKINTZA**
- **TESTU MOTA**

**3 URTE****TAILERRA: HASIERAKO EKOIZPENA.**

HELBURUA OROKORRAK	EKINTZA	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"><li>- Haur bakoitzak bere izenaz hitz egin arazi, interesa erakutsiz eta berarekin gozatuz.</li><li>- Hitz egiten dugunean zein postura mantendu behar duen landu.</li><li>- Hitzegiterakoan landu beharrezkoaz ( ahoskera) jabetu (irakaslea)</li></ul>	Bakoitzak bere izenaz hitz egingo du. Irakasleak bere izenaz zer dakien galdetuko dio,gustoko duen... Ahal izanez gero grabagailua erabiliko dugu ekintza honetan eta entzun.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Haurrak zer eta zenbat dakien bere izenaz.</li><li>- Haurraren kontaketa ulergarria den.</li><li>- Ahoskera nolakoa duen.</li><li>- Hitzegia egokia erabiltzen duen.</li><li>- Ekintzetan gozamina eta arreta mantentzen duen.</li></ul>

**3 URTE****TAILERRA: BITARTEKO EKOIZPENA**

HELBURUA OROKORRAK	EKINTZA	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"><li>- Izen erreal eta ez errealen arteko desberdintasunaz ohartarazi.</li><li>- Fikziozko izenak eta pertsonen izenen erabilera egokiaz ohartarazi.</li><li>- Bere izena identifikatzeko interesa bultzatu.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Txanogorritxuren ipuina kontatu: zergatik dauka izen hori? Ezagutzen ahal dute beste norbait izen horrekin? Zein beste izen izan dezake?</li><li>- Zein beste izen aukeratu zezaketen zuretzat?</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Izen erreal edo fikziozkoak bereizten hasi den.</li><li>- Arreta eta gozamina adierazten duten entzunaldietan.</li></ul>

**3 URTE****BUKAERAKO EKOIZPENA****UNITATE DIDAKTIKOA: NOLA DUZU IZENA ETA NORK PENTSATU ZUEN ZURE IZENA?**

<b>MODULOAK</b>	<b>HELBURU DIDAKTIKOAK</b>	<b>EKINTZAK</b>	<b>EBALUATZEKO IRIZPIDEAK</b>
<b>AHOZKO ULERMENA</b>	Helduaren azalpenetan arreta eta gozamina adieraztea.	Pertsona heldu bat esperientzia arretaz entzun. Izenaren azalpena: nola deitzen da eta nork pentsatu du bere izena?	Arreta eta gozamina adierazten duen entzunaldian.
<b>AHOZKO ADIERAZPENA</b>	Ahozko hizkuntza adierazi eta komunikatu behar sarrienak berauei dagokien hiztegia adieraztea.	Bakoitzaren izenaz hitz egin. Nola du izena eta nork pentsatua? Gurasoen izenak nolakotasun bat gehiutz lagunei kontatu.	“ETA” konektorea zuzen erabiltzen duen. Kontaketa erreala den ala ez. Dagokion Nor kasua menperatzea. Dagokion Nor-Nork kasua menperatzea.

**KAI XO:**

**NIK.....DUT**

**IZENA**

**ETA**

**NIRE.....K**

**PENTSATU ZUEN.**



## 4 URTEKO EKINTZA

- HASIERAKO EKINTZA
- BITARTETKO EKINTZA
- BUKAERAKO EKINTZA
- TESTU MOTA

**4 URTE**  
**HASIERAKO EKOIZPENA.**

<b>HELBURU DIDAKTIKOAK</b>	<b>EKINTZAK</b>	<b>EBAULATZEKO ERIZPIDEAK</b>
<p>-Haur bakoitzak bere izena eta inguruko izenen arteko berdintasunaz eta desberdintasunaz ohartarazi.</p> <p>-Komunikatzerakoan ahoskera garbia eta hiztegi aproposa erabiltzearen garrantzia ohartarazi.</p> <p>-Gorputzak mintzatzerakoan posizio egokia mantentzearen garrantziaz ohartarazi.</p>	<p>-Denek dute izena. Zentzuk dira errepikatua dauden izenak.</p> <p>-Hizki mugikorrek beraien izena idatzi.</p>	<p>-Ahoskera garbi eta lasaia erabiltzen duen.</p> <p>-Beraien izenen hizkiak identifikatzen dituzte.</p> <p>-Hiztegi egokia erabiltzen duen</p>

**4. URTE**  
**BITARTEKO EKOIZPENA**

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	<b>EKINTZAK</b>	<b>EBALUATZEKO ERIZPIDEAK</b>
<p>-Edozein hizkuntzatan gauza edo animaliak eta gizaki bizidun errealek ( ez fikziozkoek) izen desberdinak dituztela kontuarazi.</p> <p>-Bere izena eta besteen izenak identifikatzeko interesa bultzatu.</p>	<p>-Eduerne Txuri ipuina kontatu. Zergatik ote du izen hori.</p> <p>-Hizki mugikorrek Edurne Txuri izena idatzi</p> <p>-Gurasoen izenak txartel handietan idatzi.</p> <p>-Gurasoen izenak irakurri eta beraien izenekin konparatu.</p> <p>Zenbatek dute aita edo amaren izen bera.</p>	<p>-Izen errealak edo fikziozkoak bereizten dituen</p> <p>-Gauzen edo animalien izenak eta gizakion izenak desberdintzen dituen.</p> <p>-Gai den bere izena hizki mugikorrek idazteko.</p> <p>-Gozamena eta arreta mantentzen dituen.</p>

**4 URTE****BUKAERAKO EKOIZPENA****UNITATE DIDAKTIKOA: ZERGATIK DEITZEN ZARA HORRELA?**

<b>MODULOAK</b>	<b>HELBURU DIDAKTIKOA</b>	<b>EKINTZAK</b>	<b>EBALUATZEKO IRIZPIDEAK</b>
<b>AHOZKO ULERMENA</b>	- Helduen azalpenetan arreta jartzea. - Komunikazio egoera desberdinetan elkartrukatze linguistikoaren eta hizkuntzaz kanpoko seinaleen arauak erabiltzea, mezuen esanahia indartu eta entzuten duenari zentzua emateko.	Irakasle baten izenaren azalpena entzun. Gurasoen haurren izenari buruzko azalpena entzun.	Arreta adierazten duen entzunaldian.
<b>AHOZKO ADIERAZPENA</b>	-Zenbait ahozko testu errazak ulertzea eta berresatea. -Jasotako informazioa modu garbian azaltzea. -Esaldi errazak, argi eta zuzen ahoskatutakoan, egoki erabiltzea.	Etxean entzundako azalpena gelako lagunei kontatu	“ETA” eta “-LAKO” konektoreak erabiltzen duen.

<b>ULERMENA IDATZIA</b>	-Testu idatzi bate baliogarritasunaz ohartzea. -hizkuntza idatzia baliostea komunikabide, informaziobide eta gozamen giza.	Irakaslearen laguntzaz gurasoek idatzitako testuak irakurri.	Testua irakurtzeko interesa eta gozamina adierazten duen.
-------------------------	---	--	---

## 5. URTEKO EKINTZA

- HASIERAKO EKOIZPENA
- BITARTEKO EKOIZPENA
- BUKAERAKO EKOIZPENA

**5.URTE****BUKAERAKO EKOIZPENA****UNITATE DIDAKTIKOA: NORK PENTSATU ZUEN ZURE IZENA? ZEIN DA BERE JATORRIA?**

<b>MODULOAK</b>	<b>HELBURU OROKORRAK</b>	<b>EKINTZAK</b>	<b>EBALUATZEKO IRIZPIDEAK</b>
<b>AHOZKO ULERMENA</b>	-Entzunaldietan jarrera lasaia eta ernea erakustaraztea. -Gainontzekoek adierazten dituzten mezuak ulertzea.	-Etxean jasotako informazioa ulertu. Zein da bere izenaren jatorria?	-Entzunaldietan erne eta lasai dagoen. -Besteek adierazten dutena ulertzen duten.
<b>AHOZKO ADIERAZPENA</b>	-Ahozko hizkuntza besteekin erlazionatzeko baliobide gisa balioestea. -Argi eta zuzen ahoskatutako esaldien erabilera egokia.	-Etxean jasotako informazioa gelan kontatu. Zein da bere izenaren jatorria? -Gustokoa duen eta zergatik?	-Argi eta zuzen ahoskatzen duen. -denboraren aria mantentzen duen. -dagokion hiztegia erabiltzen duen. -lehenaldiko aditzaren erabilera egokia den.
<b>ULERMEN IDATZIA</b>	-kultur tradizioko zenbait testu ulertu, berresean eta irudikatzea, interesa erakutsiz eta beraiekin gozatuz. -hizkuntza idatzia eta beronen tresnak erabiltza: irudiak eta beroren denboraren arabera ordenamendua.	-Etxean jasotako testuaren irakurketa eta ulermena.	-zenbait fonemen ikusmen eta entzumen bidezko bereizketa. -gozamina eta interesa adierazten duen.

**KAI XO:**  
**NIK.....**  
**DUT IZENA**  
**NIRE.....K**  
**PENTSATU**  
**ZUEN.....LAKO.**



**5.URTE****BITARTEKO EKOIZPENA**

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	<b>EKINTZAK</b>	<b>EBALUATZEKO ERIZPIDEAK</b>
<p>-Entzunaldietan jarrera lasaia eta ernea erakustaraztea.</p> <p>-Kultur tradiziozko zenbait testu ulertzen laguntzea.</p>	<p>-Mari Errauzkin ipuina kontatuko diegu:</p> <p>zergatik deitzen da horrela?</p> <p>Ezagutzen ahal dute beste norbait izen hori duena?</p> <p>-beste hizkuntzatan nola esaten da Mari Errauzkin? eta nola idazten da?</p>	<p>-Entzunaldian arreta eta interesa adierazten duen.</p>

**5.URTE****HASIERAKO EKOIZPENA**

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	<b>EKINTZAK</b>	<b>EBALUATZEKO ERIZPIDEAK</b>
<p>-Hizkuntza guztietan izenak desberdin esaten direla kontuarazi. -Garai guztietan izenak mantendu egitne direla ulertzen lagundu. -Idatzizko informazioa jaso ahal izateko zein baliabide erabili daitezkeen ohartarazi.</p>	<p>-Haur bakoitzak bere izenaz zer dakien galdetuko diegu hipotesi desberdinak emanez. –nola esaten da beraien izena beste hizkuntzatan? Zein da beraien izenaren esanahia edo jatorria? -Guzti honen informazioa jasotzen saiatuko gara.</p>	<p>-Hiztegi egokia eta ahoskera garbia eta lasaia erabiltzen duen. -Haurraren azalpenak denboraren aria mantentzen duen. -Gozamena eta arreta adierazten duen.</p>

Guraso agurgarriak:

Idazketa eta irakurketa prozesuan murgildurik gaudenez eta izenaren istorioa lantzen ari garenez zenbait ekintza burutzea eskertuko genizueke.

Ekintzak bi egunetan zehar burutuko genituzke;

1. **Eguna** : irakurri iezaiozu zure seme edo alabari ohar hau.

Ondoren kontatu iezaiozu ahoz zure seme edo alabari nork pentsatu zuen bere izena.

Zergatik? Noiz? Zein da bere jatorria? Ondoren haurrak gelan eta denen aurrean kontatu ahal dezaten.

2. **eguna** : hurrengo egunean idatzi ezazue guk bidalitako orrian aurreko egunean ahoz kontatutakoa.

Euskaraz idazteko zailtasunak badaude eman erdaraz eta guk euskarara itzuliko dugu.

Aldez aurretik eskerrak emanez agur bero bat

**IRAKASLEAK**

